

# JARDUERA



## Irakasleen gogoeta

4

### HELBURUAK

- **Ikastetxeko hizkuntzen erabileraren eta horri lotutako erabakien inguruan hausnarketa egitea.**

### prozedura

Solasaldi bat antolatuko da eta hiru gai jorratuko dira:

- Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua. Nolako erabakiak hartu behar ditugu?
- Hizkuntzen erabilera eta erabaki didaktiko-metodologikoak arlo ez linguistikoetan. Nolako erabakiak hartu behar ditugu?
- Hizkuntzen erabilera eta erabaki didaktiko-metodologikoak hizkuntzen esparruan. Nolako erabakiak hartu behar ditugu?

Hiru mintzagai eta hiru solas-mahai (mahai bakoitzean gai bat, alegia). Partaide bakoitzak 3 mahaietan jardun behar du eta denbora agortutakoan lan-taldez aldatu. Txandaka: 15 minutuko solasaldiak mahai bakoitzean.

Solas-mahai bakoitzean gidari bat eta beste bospasei solaskide. Mintzagai bakoitzak bizpahiru galdera ditu eztabaida bideratzen laguntzeko. Mahai-gidariak eztabaida antolatu eta esandakoa idatziz jasoko du.

Jarduera hau amaitzeko, Hizkuntza Proiektuaren hiru atal nagusienetan partaideek eman dituzten iritzien inguruan hitz egingo da, horiek guztiak klaustroari dagozkion erabakiak direla ikusarazteko.

emaitza   ekoizpena		denbora   denboralizazioa	
Hizkuntzen inguruan ikastetxeak har litzakeen erabakiak.		60 minutuko saioa: 15 minutu mahai bakoitzean aritzeko eta 15 minutu inguru mahaietako gidariak euren mahaian eztabaidatutakoa laburbiltzeko.	
tresnak		ereduak   adibideak	
<p>Hiru txantilo proposatzen dira erabaki-eremuen arabera. Bertan, mahai bakoitzean jorratuko diren galderak jaso dira. Gogoeta-eremuak ezin dira aldatu; galderek, ordea, tokian tokiko egokitzapena onartzen dute.</p> <p><b>4.1. tresna.</b> Harremanen, kudeaketaren eta antolakuntzaren esparrua   56. or.</p> <p><b>4.2. tresna.</b> Arlo ez linguistikoak   57. or.</p> <p><b>4.3. tresna.</b> Arlo linguistikoak   58. or.</p>			